

ERAKUNDEAREN DATUAK

1. Erakundearen izena:	SORALUCE
2. Sektorea:	INDUSTRIA
3. Langile kopurua:	263
4. Webgunea:	www.soraluce.com
5. Erakundearen jardueraren deskribapena: (produktu eta zerbitzu nagusiak, merkatua, bezero motak...):	<p>Berrikuntzan inspiratuta eta 60 urteko historian oinarrituta, Soraluce mundu osoko liderra da teknologietan.</p> <p>Soraluce Mondragon Korporazioko Danobat Taldeko kide da, Europako enpresa garrantzitsuenetako bat.</p> <p>Soraluceren arrakasta kalitate bikainean oinarritzen da: zerbitzu estelarra, teknologia propioa eta nazioarteko izaera markatua. Soralucek, bere fidagarritasun handiagatik eta errendimendu handiagatik nabarmentzen den bezala, bere bezeroen aurrerapen teknologikoari lotutako konponbide berritzaileak garatzen ditu, erronka zailenak eraginkortasunez eta produktibitate maila handiekin erantzunez, fresaketa, mandrinaketa eta torneatze maila berriak ezarriz.</p> <p>Soralucek fresatze, mandrinatze makina eta tornu bertikal ugari eskaintzen ditu, soluzioak eta sistema automatizatuak, ingeniari profesionalei aholkuak emanez, eskarmentu handiko ingeniari talde batekin, gure bezeroen ekoizpen eta matxura prozesuak ebaluatu eta optimizatzeko konponbideak eskaintzen dituztenak.</p>

Harremanetarako datuak


Solaskidearen izen-abizenak:	
Helbide elektronikoa:	
Telefonoa:	

PRAKTIKA ONAREN AZALPEN LABURRA

1. Praktika onaren titulua:	Kalitateko intzidentzia sistemako lanketa
2. Praktika onaren azalpena:	<p>Kalitateko intzidentziak euskaraz sortzea bultzatzen gabiltza.</p> <p>Zer da? Zertan datza? Nondik dator? Zeintzuk dira onurak, lortu diren emaitzak?</p> <p>Kalitate arazo bat dagoenean, intzidentzia bat sortzen da aplikazio baten bitartez, arazo horri jarraipena egin eta soluzioa bilatzeko zirkuituan sartzeko. Intzidentzia hori da bidearen lehen pausua. Ondoren, kalitatezko bileran aztertzen da eta hortik sail batera edo bestera bideratzen da, lanean jarraitzeko.</p> <p>Bileretan euskararen erabilera bultzatzeko plana genuen, bileren mapa bat egin eta eragiteko orduan, euskararen ezagutza altuena zuten taldeetatik hastea erabaki genuen.</p> <p>Hurrengo pausua, neurketak egitea izan zen. Kalitate bileretan eragiteko aukera ikusi genuen, ezagutza handia zelako eta erabilera ez horrenbeste.</p> <p>Bilera hauetan, intzidentziak lantzen dira, beraz, intzidentzia euskaraz azalduta egotea hasteko puntu ona iruditu zitzaigun.</p> <p>Hasieran egin genuen neurketan, euskaraz sortu ziren intzidentziak %3a ziren, tope teorikoa (gaitasunaren arabera) %60 izanik. Azken neurketan %47 izan da datu teorikoa eta errealia %23a.</p> <p>Ondoko grafikan ikusten da baita, kalitate bileretako euskararen erabileraren datuen bilakaera.</p>

PRAKTIKA ONAREN INGURUKO DOKUMENTAZIOA, IRUDIAK, GRAFIKAK...

Euskaraz sortutako intzidentzi kopuruaren bilakaera:



Hau izan da kalitatezko 6 bilera desberdin kontutan hartuta euskararen erabileraren bilakaera:

